



LOKAILUAK

LOKAILUAK: AZALPEN TEORIKOA

Lokailuak bost multzotan sailka ditzakegu:

- **Emendiozkoak:** aurretik esandakoari zerbait gehitu edo gaineratzeko, adibidez: bestalde, halaber, orobat, berebat, behintzat, segurik, behinik behin, bederen, bederik.
- **Hautakariak:** testuan adierazitako gauza edo ideien artean hautatzeko, adibidez: bestela, osterantzean, gainerakoan, gainontzean, ezpabere.
- **Aurkaritzakoak:** aurretik esandakoari aurkaritza adierazteko, adibidez: ordea, berriz, oster, aldiz, aitzitik, bitartean, artean, alda, alabaina, dena dela, hala ere.
- **Ondoriozkoak:** testuan zehar esandakoaren ondorio gisako zerbait adierazteko, adibidez: beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, halatan.
- **Kausazkoak:** testu mailako kausazko loturak adierazteko, adibidez: izan ere, zeren, ze.





Emendiozko lokailuak

Emendiozko lokailuak emendatzeko edo gehitzeko erabiltzen dira. Horien artean hauek daude.

- **Ere**: osagai bati egiten dio erreferentzia; honenbestez, ez da autonomia eta ezin da bera bakarrik joan. Betiere aipatutako perpausaren elementu horren atzean eta ondo-ondoan kokatzen da.
- **Gainera**: aurretik esandako zerbait azpimarratzeko. Normalean, mendeko perpausaren hasieran doa.
- **Bestalde**: esandakoa indartzeko, perpausaren edozein lekutan koka daiteke.
- **Halaber, orobat, berebat**: aurretik esandakoari zerbait gehitzeko, perpausaren edozein lekutan doalarik.
- **Behintzat, bederen, behinik behin**: aurretik esandakoari zalantza kutsua eranstea. Ez dira neutroak; hiztunaren ustea adierazten dute.

Lokailu hautakariak

Lokailu hautakariak, izenak berak adierazten duenez, gauza edo ideien arteko hautaketa adierazteko erabiltzen dira. Beraz, edo eta ala juntagailuen balioak dira, adibidez:

Ez edan gehiago **edo** mozkortuko zara.

Ez edan gehiago; **bestela** mozkortuko zara.

- **Bestela, osterantzean**: bi erabilera nagusi ditu, baldintza eta murriztapena, "hori alde batera utzita" esapidearen antzeko esanahia duela. Esaiozu egia; bestela, haserratu da.
- **Gainerakoan**: balio murriztailea edo baldintzakoa. Jan agudo, gainerakoan ohera eramango zaitut.
- **Eztabere, ezperen**: baldintza balioa du, eta beti perpausaren hasieran agertuko da. Zehaztapen bat egingo dugu, eztabere, askok pentsa dezakete salbuespen bat dela.

Aurkaritzako lokailuak

Aurkaritzako lokailuak (ordea, ostera, aldiz, berriz, aitzitik, hala ere, alabaina, alta, dena dela...) aldeztu aurretik esandako zerbaitekiko aurkaritza adierazteko erabiltzen dira. Beraz, baina juntagailuaren antzekoak dira, adibidez:

Ez dut inoiz ikusi; **baina** berehala ezagutuko nuke.

Ez dut inoiz ikusi; **hala ere**, berehala ezagutuko nuke.

- **ordea, ostera, aldiz, berriz** antzekoak dira, eta oro har, perpausa hasieran, tartean, zein bukaeran ager daitezke. ordeak, berriz, lekua murriztuagoa dauka.
- **Aitzitik**: lehenengo perpausa ezezkia denean; bigarren perpausaren hasieran agertuko da.
- **Hala ere**: bigarren perpausaren hasieran kokatuko dugu. Eta eta baina juntagailuekin batera maiz agertzen da.
- **Alabaina**: bi adiera har ditzake: aurkaritza eta azalpena.
- **Dena dela**: Nolanahi ere esapidearen baliokidea da eta normalean bi perpausen artean jartzen da.
- **Aitzitik, horratik**: bi erabilera ditu, alegia, aurkaritzako lokailu gisa ager daiteke edo haridura perpausetan.

Ondoriozko lokailuak


Ondoriozko lokailuak (beraz, bada, hortaz, orduan, halatan, honenbestez, horrenbestez...) beste lokailu guztiak bezala, ideia eta perpausen arteko lotura adierazteko erabiltzen dira, baina ondorio kutsua gaineratuz. Alegia, jarraian esango dena aurretik esandakoaren ondorioa dela adierazteko erabiltzen dira. Hau dela eta, ilatiboak edo kontsekutiboak esan ohi zaie.

- **Beraz**: dedukzioa egiteko erabiltzen da eta, oro har, bi perpausen artean agertzen da.
- **Bada**: hiru balio dauzka: ondorioa (= beraz), kausa (= zeren) eta hitz indargarri gida.
- **Hortaz**: beraz baliokidea da.
- **Orduan**: baldintza kutsua du.
- **Honenbestez, horrenbestez, hainbestez**: erakusleetatik eratorriak dira, eta beraz baliokidea.
- **Halatan, hala**: beraz lokailuaren baliokidea.

Kausazko lokailuak

Kausazko lokailuak (izan ere, zeren, ze, zergatik, alabaina, bada...) gainerako lokailu guztiak bezalaxe, ideia eta perpausen arteko lotura adierazteko erabiltzen dira, baina kausa kutsua gaineratzen dute. Nolabait, jarraian esaten dena aurretik esandakoaren zergatia edo azalpena dela adierazten dute.

- **Izan ere:** perpausaren hasieran ipintzen da, eta beste partikula batzuekin ere ager daiteke.
- **Zeren:** perpausaren hasieran agertzen da, eta eta izaten du, indargarri gisa.
- **Alabaina:** posizio guztietan ager daiteke.
- **Bada:** zeren lokailuaren parekoa da.





Testu antolatzaileak

Hasierakoak

Hasteko,
Lehenengo eta behin,
Ezer baino lehen,
Ezeri ekin baino lehen,

Bazen behin
Lehen-lehenik,
...z hitz egin behar dudalarik,
Sarrera gisa esango dugu ...

ordena markatzeko

Aide batetik, ... Bestetik,
Ido beretik,
Era berean,
Halaber,
Lehenik.../ bigarrenik, ...
(Arestian) esan bezala,

(Gorago) esan bezala,
Lehenengo hariari jarraituz,
Gauzak horrela,
Horiek horrela,
Bai... bai
Ez... ez

Idela bat aurkezteko

-ri dagokionez,
... dela eta, komeni da esatea ...
oro har,



Jarraipena

(Honen) ondorioz,
Horren haritik,
Hari beretik,
Era berean,

Bigarrenik,
Gero,
Honen ostean,
Hau (ikusit) eta gero,

Kontrakotasuna

Baina
Dena dela, / Dena den,
Hala (eta guztiz) ere,
Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Nolanahi ere,

Esanak esan,
Horirek) gorabehera,
..., ordea,
..., berriz,
..., aldiz,



Aipamenak; iritziak emateko

(r)en arabera,
Askoren / Batzuen iritziiz,
... (r)en ustez,
(r)en esanetan,
Diotenez,
Antza denez,

Dirudienez,
Badirudi... -(e)la
...(e)la dirudi
Dakigunez,
Irakurri dugunez,

Adibideak jartzeko

Adibidez,
Esate baterako,
Hau da,

Ikus, adibidez, -ren kasua: ...
Kasu (bat aipatzeko ...)
Hori erakusteko, aipa dezagun

Arrazoitzeko

bait-
... -(e)lako
-(e)la eta
-(e)la bide
-(t(z)e)agatik
Horregatik

izan ere,
Hori dela eta,
Horrela, ba,
Beraz,
Hortaz,

Indartzea

Aipatu bezala,

Aipatu dugunez,

Berriro esanda,

Beste era batera esanda,

Zehatzago esanda,

gainera,

Hobeto esanda,

(Gorago) esan bezala,

Are gehiago,

gainera,

Kontuan hartu,



onarpena (ziurtasuna)

Ez dago dudarik...

Seguruenik

Ziur aski

Zer esanik ez

Egia da... -(e)la

Dударик gabe

Zalantzarik gabe

Argi dago (e)la

Bistan da (e)la

Beharrezkoa da garbi uztea

..., noski / ..., jakina

Bukaerakoak eta ondorioak

Amaitzeko, / Bukatzeko,

Amaiera bezala,

Aurreko guztia (laburbilduz)

ondorio gisa,

Amai dezagun esanez (e)la

Azkenik, zera...

Laburbilduz,

Hitz gutxitan (esateko)...

Horrenbestez, zenbait ondorio atera

daitezke: 1... 2... 3...

Idea berriak txertatzeko

Ez hori bakarrik,

Bestalde / Beste aldetik

Baita ... ere

Baina, bestetik,

... ere bai

Egia da, hala ere,

izan ere,

(Horrez) gain

ez ezik ... ere

æk



Euskaljakintza

Maritxuberritxu-lokailuak

EHU-lokailuak

Euskara eta literatura.blogspot.com

Euskaltzaindia

otrapinta.blogspot.com

...



• Lotu perpausak lokailu hauek erabiliz: hortaz, halere, halaber, berriz eta izan ere.

1. Alaskara joan zen. Lurmutur Hirira ere joan zen.

2. Bizikletaz mugitzen zen. Lau kontinente zeharkatu zituen.

3. Marthalerrek bufaloaren itxura zuen. Tibetarrek Jak izena eman zioten.

4. Jendeak gauza asko eman zizkion. Berak jendeari jaso zuenaren zati txiki bat baino ez zion eman.

5. Oso gogorra izan da. 20 urte eman ditut erbestean.

• Bete hutsuneak lokailu hauek erabiliz: gutxienez, behintzat, nolahi ere, bestela, aitzitik

6. Dirurik ez dut,, hori ez da gehien kezkatzen nauena.

7. Hitz egin ezazu errespetu handiz;, ez dizute kasurik egingo.

8. Denok ezagutzen ditugulakoan ez ditut arazo larri honen arrazoiak azalduko....., bai, bere ondorioak.

9. Zure laguna dibertigarria eta atsegina,, bada.

10. Esango dizut, baina ordu erdi itxaron beharko duzu,



- Lotu itzazu esaldi hauek lokailu egoki baten bidez (honako hauek erabil ditzakezu):

beraz, aldiz, berriaz, besterik, baino, hortaz, dena den, dena dela, izan ezik, alabaina, behintzat, hori dela eta, baizik, hala ere, osterantzean, aitzitik, beharrean, batez ere, ordea, hortaz, nolanahi ere, besteak beste, ordez, haatik.

Kontuan hartu hauetako batzuk baliokideak direla, beraz, aukera bakoitzean bat baino gehiago izan daiteke zuzena.

1. Komeni da denok Internet edukitzea; nik,, badaukat.
2. Gutxi batzuek ez daukate;, azaldu dute jartzeko asmoa badutela.
3. Gauza batzuetarako onerako izan daiteke; beste batzuetarako,, txarrerako.
4. Umeak dagoeneko ez dira ia kalean jolasten;, errazago dute mendekotasuna hartzea.
5. Zoritxarrez, gelako ume guztiek daukate, nire alabak
6. Ondo erabili behar da;, kaltegarria ere izan daiteke.
7. Informazioa azkarrago lortzeko ona da;, informazio horren fidagarritasuna beti ez da gauza ziurra.
8. Nik ez dut denbora-pasa gisa erabiltzen, lanerako tresna gisa
9. Zuek asteburuetan erabiltzen duzue gehiago; guk,, lanegunetan.
10. Umeak erabiltzen hasteko, beraien kabuz utzi....., hobe genuke haiekin egon eta gauzak azaltzea.
11. Egoki erabil dezaten..... ez dut nahi.
12. Eskolako gai askotarako erabil daiteke: geografia, historia, matematika, ingelesa eta zientzietarako,
13. Bere erabilgarritasuna dela eta, gero eta zabaldago dago;, jendea ere gero eta jantziago dago bere erabileran.
14. Gazte askok guk baino hobeto ezagutzen dute;, haiengandik ere ikasi beharko dugu.
15. Gero eta hobeto ezagutzen du jendeak;, zail da bere erabilpen mota guztiak ezagutzea.
16. Denetarako da erabilgarri, baina eskoletan atera diezaiokete etekin handia, ondo erabiliz gero, noski.



Erantzun orria.

HANBAT LOKAILU

1. Alaskara joan zen; **halaber**, Lurmutur Hirira joan zen.
2. Bizikletaz mugitzen zen; **halere**, lau kontinente zeharkatu zituen.
3. Marthalerrek bufaloaren itxura zuen, **beraz**, tibetarrek Jak izena eman zioten.
4. Jendeak gauza asko eman zizkion. Berak, **ordea**, jendeari jaso zuenaren zati txiki bat baino ez zion eman.
5. oso gogorra izan da; **izan ere**, 20 urte eman ditut erbestean.
6. Dirurik ez dut; **nolanahi ere**, hori ez da gehien kezkatzen nauena.
7. Hitz egin ezazu errespetu handiz; **bestela**, ez dizute kasurik egingo.
8. Denok ezagutzen ditugulakoan ez ditut arazo larri honen arrazoiak azalduko: **aitzitik**, bai, bere ondorioak.
9. Zure laguna dibertigarria eta atsegina, **behintzat**, bada.
10. Esango dizut; baina ordu erdi itxaron beharko duzu, **gutxienez**.

LOKAILU GEHIAKO

1. behintzat/ behinik behin
2. hala ere/ dena dela/ dena den
3. aldiz/ ordea
4. hori dela eta/ beraz
5. izan ezik
6. bestela/ osterantzean
7. nolanahi ere/ alabaina/ haatik/ hala ere/ dena den



8. baizik
9. berriaz/ aldiz
10. beharrean/ ordez/ barik
11. besterik/ baino/ baizik
12. besteak beste
13. hortaz/ beraz/ hori dela eta
14. hortaz/ beraz/ hori dela eta
15. aitzitik/ dena dela/ hala ere
16. batez ere/ batik b